



UDALBURUA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Lauren Urija Peña jn.

Nerea Goti Valle and.

Josu Artetxe Arana jn.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Iraida Saenz de Lafuente and.

AIARAKO UDALAK 2018ko URRIAREN 18an
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko urriaren hemezortzian, hemeretziak eta bost minutu direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA:

M^a del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko **AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko irailaren 14an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.-

Ez du inork kontrarik esan, eta akta hori adostasunez onartu dute.

2.- 2018ko soldata-igoera.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2018ko urriaren 9an eginiko bilkuran emandako irizpenaren berri eman zaio Udalbatzari. Hau dio:

“Jarraian, gai honen inguruko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Batzordeari; hau dio:

“AINTZAT HARTU DA 2018ko uztailaren 4an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela uztailaren 3ko 6/2018 Legea (Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa).

AINTZAT HARTU DA lege horrek hau ezartzen duela langileen gastuei buruzko bere hirugarren tituluko 18. artikuluan, bigarren atalean:

“Bi. 2018an, sektore publikoko zerbitzuaren menpeko langileen ordainsariek ezingo dute % 1,5etik gorako gehikuntza orokorra izan, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, homogeneotasun-baldintzetan erkaketaren bi aldietarako, bai langileei bai horien antzinasunari dagokienez.

Aurrekoaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) areagotzea prezio konstanteetan % 3,1era iritsiko balitz edo hori gaindituko balu 2017an, 2018ko uztailaren 1eko ondoreekin, ordainsarrietan % 0,25eko beste areagotze bat aplikatuko litzateke.

Atal honetan xedatutakoaren ondoretarako, BPGd-ren areagotzeari dagokionez, Espainiako Estatistika Institutuak (INE) argitaratutako urte bakoitzeko BPGd-ren estimazioaren aurrerapena aintzat hartuko da.

INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ondoren, eta 2018ko martxoaren 9an Segimendu Batzordeari enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko erabakiaren berri eman baino lehen, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez onartuko da, hala badagokio, gehikuntza aplikatzea. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari.

Horrez gain, soldata-masaren % 0,2ko areagotze osagarria baimendu ahalko da, beste neurri batzuen artean, ekoizpena edo eraginkortasuna hobetzeko planak edo proiektuak ezartzeko, antzeko eginkizunak dituzten lanpostuen arteko berariazko osagarriak aztertzeko, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio-planekiko ekarpenak egiteko. Administrazioetan eta artikulu honetan definitutako sektore publikoaren menpeko gainerako erakundeetan, 2017 ekitaldian aurrekontuko superabit egoeran badaude, areagotze osagarri hori % 0,3koa izan ahalko da...”

IKUSI DA, aipatutako 18. artikulua bigarren atalaren arabera, Ministro Kontseiluak sektore publikoko langileen ordainsarietan % 0,25eko gehikuntza osagarria aplikatzea onetsi duela. Hori horrela, Udalbatza Osoari proposatzen zaio erabaki hau hartzea:

Lehenengoa.- Udaleko langileen 2018 ekitaldiko ordainsariak % 1,5 areagotzea, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean, 2018ko urtarrilaren 1eko ondorekin. Eta % 0,25eko soldata-gehikuntza osagarria aplikatzea, 2018ko uztailaren 1eko ondorekin.

Bigarrena.- Alkatetzaren ordainsariak ere areagotzea 2018 ekitaldirako, zenbateko berean, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

Hirugarrena.- Aipatutako gehikuntzei aplikatu dakizkiekeen eta jaso ez diren atzeratutako zenbatekoak ordaintzea.

Laugarrena.- % 0,2 edo % 0,3ko aurrekontu-superabitaren arabeko gehikuntza osagarriari dagokionez, azterketa bat egitea 18.2 artikulua bosgarren paragrafoan aipatzen diren lege-formulak ezarri eta zenbateko horiek banatu ahal izateko.

Bosgarrena.- Aurrekontu-aplikazioak areagotzeko egin behar diren aurrekontu-aldaketak egitea, erabaki honek dakartzan gastuak ordaindu ahal izateko.

Seigarrena.- Erabaki honen berri ematea ordezkari sindikalari eta Udaleko Kontu Hartzailtza eta Diruzaintzari.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta. Elektronikoki sinatutako agiria”

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta adierazi du, langileei buruzko kontu bat denez, ordezkari sindikalak Batzordean egon behar lukeela. Galdetu du, halaber, ea Alkatetzaren soldata-igoera berdina den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak adierazi du dagoeneko hitz egin duela honi buruz ordezkari sindikalarekin, eta hark ez duela eragozpenik adierazi. Gehitu du soldata-igoera berdina dela.

Beste inork hitz egin ez duenez, Batzordeak aho batez erabaki du, bozketa arrunt bidez, Udalbatza Osoak erabaki hau hartzearen aldeko txostena egitea:

Lehenengoa.- Udaleko langileen 2018 ekitaldiko ordainsariak % 1,5 areagotzea, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean, 2018ko urtarrilaren 1eko ondorekin. Eta % 0,25eko soldata-gehikuntza osagarria aplikatzea, 2018ko uztailaren 1eko ondorekin.

Bigarrena.- Alkatetzaren ordainsariak ere areagotzea 2018 ekitaldira, zenbateko berean, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

Hirugarrena.- Aipatutako gehikuntzei aplikatu dakizkien eta jaso ez diren atzeratutako zenbatekoak ordaintzea.

Laugarrena.- % 0,2 edo % 0,3ko aurrekontu-superabitaren araberrako gehikuntza osagarriari dagokionez, azterketa bat egitea 18.2 artikulua bosgarren paragrafoan aipatzen diren lege-formulak ezarri eta zenbateko horiek banatu ahal izateko.

Bosgarrena.- Aurrekontu-aplikazioak areagotzeko egin behar diren aurrekontu-aldaketak egitea, erabaki honek dakartzan gastuak ordaindu ahal izateko.

Seigarrena.- Erabaki honen berri ematea ordezkari sindikalari eta Udaleko Kontu Hartzailtza eta Diruzaintzari”.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) berriro esan du bere ustez ordezkari sindikalak Batzordean egon behar lukeela; izan ere, gai honekin ados badago ere, baliteke eztabaidatu beharreko beste gai batzuk sortzea.

Beste inork hitz egin ez duenez, aho batez erabaki dute, bozketa arrunt bidez, Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio batzordeak 2018ko urriaren 9an egindako irizpena, hemen jasotakoa, onestea.

3.- Onestea “LUIAONDOKO BARRENA KALEA BERRONERATZEKO PROIEKTUA: APARKALEKUAK JARTZEA, MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA AISIALDIRAKO EREMU BAT JARTZEA” obraren exekuzio-proiektua.-

Jarraian, “LUIAONDOKO BARRENA KALEA BERRONERATZEKO PROIEKTUA: APARKALEKUAK JARTZEA, MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA AISIALDIRAKO EREMU BAT JARTZEA” obraren exekuzio-proiektuaren berri eman zaio Udaltzari. Obra horrekin parte hartu dute 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartu zen Leader zonako landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdian, bat etorritik Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretako sailburuaren apirilaren 24ko Agian ezarritakoarekin (2018ko maiatzaren 8ko EHAA, 87. zk.).Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak adierazi du oinarritzko proiektua Batzordean aztertu zela, eta ondoren bilkura bat egin zela auzotarrekin. Esan du, halaber, oinarritzko proiektuan aipatzeko moduko aldaketa bakarra egin zela: oinarritzko proiektuan, bideetako bateko zirkulazioa bi noranzkoko zen, eta egokitzat jo zen noranzko bakarra jartzea eta, hala, jolaserako eremu bat sortzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, bozketa arrunt bidez, “LUIAONDOKO BARRENA KALEA BERRONERATZEKO PROIEKTUA: APARKALEKUAK JARTZEA, MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA AISIALDIRAKO EREMU BAT JARTZEA” obraren exekuzio-proiektua onestea. Proiektua Estibaliz Aldama Molinuevo arkitekto andreak idatzi du (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko kidea, 4392 zk.) eta hori kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua 230.258,86 eurokoa da.

4.- Onestea 2017ko Kontu Orokorra.- Ikusi da Aiarako Udalaren 2017 ekitaldiko Kontu Orokorra, baita indarreko legeriari jarrikiz espedientean jaso diren eranskin guztiak ere.

Ikusi da Udaleko Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Erregimena eta Kontuetarako Informazio Batzorde Bereziak 2018ko irailaren 11n eginiko bilkuran erabaki zuela Aiarako Udalaren 2017 ekitaldiko Kontu Orokorren aldeko txostena ematea. Bilkura horretan erabaki zuen, halaber, Kontu Orokorra jendaurrean jartzea, hamabost egunez, iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe horretan, interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkez ditzakete.

Ikusi da, Udaleko Erregistro Orokorren arduradunak emandako txostenarekin bat etorritik, ez dela Kontu Orokorren aurkako alegazio-idatzirik aurkeztu 2018ko irailaren 25etik urriaren 16ra bitartean.

Ikusi da Kontuatarako Batzorde Bereziak eginiko txostena eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 22.2.e) artikuluan xedatutakoarekin bat, Udalbatzak hau erabaki du aho batez, bozketa arrunt bidez:

LEHENENGOA.- Onestea Aiarako Udalaren 2017 ekitaldiko Kontu Orokorra.

BIGARRENA.- Onetsitako Kontu Orokorra eta barne hartzen duen dokumentazio guztia igortzea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, bat etorritik Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuari buruzko Foru Arauaren (otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua) 63.5 artikuluan ezarritakoarekin.

5.- Udalbatza Osoari organo kontu-hartzailearen txostenaren berri ematea, diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz aurrekontu egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, 4/2018 kreditu gehigarriari dagokionez.

Jarraian, Kontu Hartzailtzak 2018ko urriaren 10ean egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzari. Txosten hori kreditu gehigarria finantzatzeko Diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz aurrekontu egonkortasuna bete ez izanari buruzkoa da. Hau dio:

KONTU HARTZAILETZAREN TXOSTENA

GAIA: Aurrekontu aldaketa, Diruzaintzako gerakinaren kargura, gastu orokorretarako.

Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak (17/2014 Foru Arauak aldatua) zenbait aldaketa ezartzen ditu Diruzaintzako gerakina erabiltzeari dagokionez. Aldaketa horien arabera, gerakinaren kargurako kreditu-aldaketa bat onesteko beharrezkoa da Kontu Hartzailtzaren txosten bat igortzea Udalbatza Osoari, egonkortasunaren helburua bete ez dela egiaztatuz. Hori kontuan hartuta, eta Aiarako Udaleko kontu-hartzaile karguak berekin dakartzan funtzioak betetz, txosten hau igortzen dut, bi eranskinekin:

- I. eranskina: gerakina erabiltzeko proposamena, hainbat kreditu gaitzeko.
- II. eranskina: Kontu Hartzailtzaren txostena, gastuak Diruzaintzako gerakinarekin finantzatzaren ondorioz egonkortasuna ez betetzeagatik.

I. ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA

2017 EKITALDIAN GASTATU GABEKO ZENBATEKOAREN LIKIDAZIOTIK ATERATAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA, GASTU OROKORRETARAKO: **296.062,88 €** (gainerakoa 2017an baimendutako eta gastatu gabeko kreditu-gerakinak sartzeko eta kreditu gehigarrietarako erabili da).

ERABILERA-PROPOSAMENA: 15.323,45 €

FINANTZAKETA-TRANSFERENTZIAREN OSAGARRIA
FOTOKOPIAGAILU BAT EROSTEA UDAL-BULEGOETARAKO: 3.146,00 €
ARANZADIREN LANA IZORIAKO BATZARRAREKIN BATERA FINANTZATZEA: 1.687,79 €
IKASTOLARAKO DESFIBRILADOREA EROSTEA: 1.235,00 €
ARRATOI-POZOIA EROSTEA: 600,00 €
ZENBATEKOA GUZTIRA 15.223,49 €

II. ERANSKINA: IDAZKARITZA ETA KONTU HARTZAILETZAREN TXOSTENA, AURREKONTU-EGONKORTASUNA EZ BETETZEAGATIK.

I. TXOSTENAREN OINARRIAK

Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2003 Foru Arauaren 7.1 artikularekin bat etorritik (17/2004 Foru Arauak emandako idazketan), aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastu-araua betetzen ez bada, bete ez duen administrazioak Ekonomia eta Finantza Plan bat egin beharko du, indarrean dagoen urtean eta hurrengoan helburuak edo gastu-araua bete ahal izateko.

Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikulua ezartzen du, aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzearen arrazoia bada gastuak Diruzaintzako gerakinarekin ordaindu direla, Ekonomia eta Finantza Planaren ordeztu, Udaltza Osoari jakinarazpena egin beharko diola kontu-hartzailetza zereginak betetzen dituen organoak. Bertan jaso beharko da gertatu dena, baita Udaltzaren finantza-iraunkortasunaren azterketa eta ebaluazioa ere. Jakinarazpenak hauek zehaztu beharko ditu gutxienez:

a) Erakundearen eta haren mendeko entitate eta organismoen aurrekontu-egonkortasunaren helburuak.

b) Diru-sarrera eta gastuen partida nagusien proiektzioak, kontuan izanda horien joeraren bilakaera (alegia, aldatu ezin diren politikak) eta dagokion aldirako aurreikusitako neurrien eragina.

c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioek oinarri izango dituzten egoera nagusiak.

d) Diruzaintzako gerakina agortzen den uneko aurrekontu- eta finantza-egoerak.

e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.

Txosten hau kreditu-aldaketaren espedientearen zati izango da.

Osoko bilkuraren akta, kontu-hartzailetza organoaren txostena eta horren euskarritzat har daitekeen gainerako dokumentazio guztia Arabako Foru Aldundian toki-erakundearen gaineko eskumena duen sailari igorriko zaizkio. Hark, 30 eguneko epean, informazio gehigarria igortzeko eskatu ahal izango du, baita neurri osagarriak hartzeko ere, hala nola Ekonomia eta Finantza Plana egitea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasunaren berme gisa. Epe hori igarotakoan, Arabako Foru Aldundiak berriazko ebazpenik eman ez badu, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da.

ESPARRU SUBJEKTIBOA:

Txosten honen asmoa da aurrekontu-aldaketa bat (txosten hau barne hartzen duen espedienteari dagokiona) Diruzaintzako gerakina erabiliz finantzatzaren ondorioz sortutako ezegonkortasun-egoera aztertzea.

HELBURUAK:

Proposatutako aurrekontu-aldaketa Diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeko berekin dakar egonkortasun-printzipioa haustea. Dena den, arau-hauste hori ez da egiturazkoa, koiunturala baizik.

Hori dela eta, aurrekontu-muntak aztertu behar dira, eta txosten honen xedea da helburu hauek betetzen direla egiaztatzea:

- Aurrezki garbi positiboa
- Diruzaintzako gerakin positiboa
- Zorpetze kontsolidatua ekitaldi bakoitzean ezarritako mugen azpitik
- Aurrekontu-egonkortasun kontsolidatuta, superabitarekin edo finantzatzeko gaitasunarekin (KSEri jarraikiz)
- Gastu-araua betetzea

Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2003 Foru Arauaren 7. artikuluko 3. atalaren arabera (17/2014 Foru Arauak emandako idazketan), txostenak egitura hau izan behar du:

1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: bertan aztertuko da erakundearen **aurrekontu-egonkortasunaren helburuak** bete diren edo ez.

2.- **Gastu eta diru-sarreraren egoeren proiektzioak.**

3.- Inbertsioaren funtzionamenduak **gastu arruntean izango duen eragina.**

II. EGUNGO EGOERAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA-DIAGNOSTIKOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN HELBURUAK

Onetsitako azken likidazioan eskuratutako datuetatik, hauek dira aipagarrienak:

MUNTA	ZEBATEKOA	BETE DA/EZ DA BETE
Aurrezki garbia	306.668,44 €	POSITIBOA
Diruzaintzako gerakina	550.133,56 €	POSITIBOA
Aurrekontu-emaiza	168.908,23 €	POSITIBOA
Zorpetze-maila	0	
Aurrekontu-egonkortasuna	167.278,99 €	SUPERABITA. BETE DA
Gastu-araua	+ 81.368,53 €	% 7KO GORAKADA. EZ DA BETE. HORRI BURUZKO KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENAREN BERRI EMAN ZAIO UDALBATZARI. EZ DA BEHARREZKOA FINANTZA-PLANA EGITEA.

III. GASTU ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK.

Aldi honetarako Ekonomia eta Finantza Planean zifrak proiektatzeko aukera emango diguten aldagaiak eta neurriak zehaztasunez definitze aldera, EGOERA posible hau ezarri da:

- Berreskuratze ekonomikoko egoera batetik gatoz, eta horrenbestez, uste dugu toki-erakundearen jarduera ekonomikoa mantendu edo pixka bat areagotuko dela. Horrek berekin ekarriko du tokiko diru-sarrerak hobetzea, bereziki TEFFFn parte hartzeagatik lortutakoak, eta zerbitzu publiko gehiago eman ahal izatea.
- Gastuei dagokienez, arlo honetako murrizketek bere horretan jarraitzen dute, hala langileen gastuetarako nola beste gastu batzuetarako. Murrizketa horiek ditugu, hain zuzen, Estatuko aurrekontu orokorren legeek hala ezartzen dutelako eta aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzeko beharrezkoak direlako (gastu-araua, gastu-muga, egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna).

MUNTA NAGUSIEN EBOLUZIOA

Hona hemen indarreko ekitaldian eta hurrengoan aztertutako munten eboluzioa:

HELBURUAK	2015	2016	2017
Aurrekontu-egonkortasuna	68.196,98 €	292.710,37€	167.278,99
Egonkortasun/Diru-sarrera ez-finantzarioen %	% 2,51	% 11,92	% 7,14
Gastu-araua	370333,93 €	- 185.481,66	81368,53 €
Zorpetzea	0	0	0
Aurrezki garbia	295552,46 €	288.786,63	306.668,44
Aurrezki garbi/diru-sarrera arrunten %	% 14,19	% 13,86	% 14,19
DIRUZAINZAKO GERAKINA	440.692,28 €	591.367,50 €	550.133,56

IV. AURREKONTU- ETA FINANTZA-EGOERAK DIRUZAINZAKO GERAKINA AGORTZEN DEN UNEAN.

III-C.1 DIRUZAINZAKO GERAKINA.

Diruzaintzako gerakin positiboak erakundeak guztira bildutako epe laburreko likidezia islatzen du, une jakin batean, etorkizun hurbilean gastua finantzatzeko erabil daitekeena.

Gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakin doitua.

Gastu orokorretarako gerakina aurrekontura aplikatu beharreko hartzekodunen datuetara doitzen da, baita ordaindu beharreko diru-sarreraren itzulketetara ere. Horrek munta horren irudi erreala goa ematen digu. Munta horrek toki-erakundearen epe laburreko benetako likidezari buruzko informazioa ematen digu.

III-C.2 AURREZKI GARBIA.

Aurrezki garbiak erakundearen zorpetze-ahalmenaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du epe luzerako mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko ahalmenik. Aitzitik, aurrezki garbia positiboa bada, epe luzerako mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko ahalmenari buruzko informazioa ematen digu. Era berean, horren bidez jakin dezakegu zein zenbatekora arte eta zein baldintzetan egin daitekeen hori. Hori bai, munta horrek erakundearen zorpetze-ahalmenaren informazio zehatzagoa emateko, Foru Arauan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa doitu behar litzateke bertatik kenduta salbuespeneko diru-sarrerak eta errepikatzen ez diren horiek.

III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA.

Zor bizia adierazle garrantzitsua da erakundearen finantza-kaudimena ebaluatzeko. Kaudimen-arazoak gehiegizko zorpetzearen ondoriozkoak izan daitezke; horrek finantza-karga areagotzen du eta hori gastu arruntaren gainerakoari gehitzen badiogu, ezinezkoa da hori guztia erakundearen diru-sarrera arruntekin estaltzea. Hala, aurrezki garbi negatiboa sortzen da.

III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA.

Aurrekontu-egonkortasunak erakundearen finantzaketa-ahalmen/-beharraren berri ematen digu. Hortaz, zeharka inplikutzen du zorpetzeak urtero amortizatzen den zenbatekoa areagotu dadila mugatzen duela (KSE 95 terminoetan kalkulaturak). Erakundeak finantzaketa-beharra badu (gastu ez-finantzarioak diru-sarrera ez-finantzarioak baino altuagoak dira), horrek esan nahi du erakundeak kanpoko finantzaketa behar duela (zorpetzea), gastuei aurre egin ahal izateko.

Erakundeak finantzaketa-ahalmena badu (gastu ez-finantzarioak diru-sarrera ez-finantzarioak baino txikiagoak dira), horrek islatzen du zer-nolako tartea duen erakundeak zorpetzeari aurre egiteko.

III-C.5 GASTU-ARAU.

Gastu-araua zerga-arau bat da eta bere helburua gastu konputagarria mugatzea da, zenbateko hori ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako ehunekoa besterik soilik aldatzeko. Hala, aurrezki publiko handiagoa lortuko da, bilketa areagotzeko neurri osagarriez lagunduta ez dagoen gastuaren areagotzeari oztipo bat jarritz.

III-D. MUNTA EZBERDINEN EBOLUZIOARI BURUZKO ONDORIOAK.

Txosten honetan jasotako datuekin bat etorritik aztertutako gastuen eta diru-sarreraren egoeren kapituluaren proiektioetatik hau ondoriozta daiteke: Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak **ez dio egiturazko desorekarik ekartzen Erakunde honi, desoreka koiunturala baizik, urtebeteko epean markaturako helburuak berriro betez, Ekonomia eta Finantza Plana formulatzeko beharrik gabe.**

V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTU ARRUNTEAN IZANGO DUEN ERAGINA.

Hurrengo ekitaldietarako eginiko proiektioetatik (III.C), aurrezpen arrunt garbi positiboa ondorioztatzen da; hortaz, etorkizunean sor litekeen gastu arrunta, kreditu-aldaketa honek finantzatzeko gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz, erakundeak sortutako diru-sarrera arruntekin estali ahalko da. Halaber, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako markatutako helburuaren azpian kokatzen da; beraz, bi datu horiek elkartuta ondoriozta daiteke **etorkizuneko finantza-iraunkortasuna ez dela arriskuan jarriko**.

Gainera, aintzat hartu behar dugu proposatutako aldaketek bere horretan ez dutela etorkizuneko ekitaldietan gastu arruntaren areagotze nabarmenik ekarriko.

Txosten hau kreditu-aldaketaren espedientean sartuko da.

Osoko bilkuraren akta, kontu-hartzailetza organoaren txostena eta horren euskarritzat har daitekeen gainerako dokumentazio guztia Arabako Foru Aldundian toki-erakundeen gaineko eskumena duen sailari igorriko zaizkio. Hark, 30 eguneko epean, informazio gehigarria igortzeko eskatu ahal izango du, baita neurri osagarriak hartzeko ere, hala nola Ekonomia eta Finantza Plana egitea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasunaren berme gisa.

Arespalditzan.- IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA.- Sin.- Carmen Rojo Pitillas.
Elektronikoki sinatutako agiria”.

AINTZAT HARTU DA Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzko Foru Arauaren (abenduarien 13ko 38/2013 Foru Araua) 7.1 eta 7.3 artikuluetan ezarritakoa, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan.

Udalbatzak Kontu Hartzailetak 2018ko urriaren 10ean egindako txostenaren berri izan du. Txosten hori, kreditu gehigarria finantzatzeko diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz aurrekontu-egonkortasuna bete ez izanari buruzkoa da.

6.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.- Jarraian, 2018/401 eta 2018/476 zenbakiko Alkatetza Dekretuen berri eman zaio Udalbatzari; hona hemen horien laburpena:

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/401.- 2018-2019ko Eskola Agendarako diru-laguntzaren eskaera.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/402.- E.M.E.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/403.- R.M.O.O.- Obrak egiteko udal-baimena ematea horma konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/404.- N.I.S.M.A.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/405.- P.D.P.- Obrak egiteko udal-baimena ematea lursailean dagoen horma konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/406.- E.G.B. - Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitza barruan askotariko lanak egiteko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/407.- Atezain-postuan behin-behineko langilea izendatzea, plazaren titularraren baja estaltzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/408.- R.F.D.S.- Biztanleen udal-eroldako baja, bidegabeko inskripzioagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/409.- Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/410.- D.C.E.- Obrarako lizentziaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/411.- A.D.A.D.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitza bateko bainugela zaharberritzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/412.- Luiaondoko Administrazio Batz.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/413.- R.M.Q.- Alegazioak gaitzestea eta lehengoratzeko-espedientea ebaztea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/414.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batz. - Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/415.- 2018ko musika eta dantza jardueretarako diru-laguntzaren oinarriak eta deialdia onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/416.- Luiaondoko Padura 43 helbideko Etxejabeen Elk. - Obrak egiteko udal-baimena ematea eraikineko atariaren atea aldatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/417.- J.A.B.C. - Behin-behineko kontratua amaitzeagatiko amaierako likidazioa ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/418.- Alday Fundazioa.- Eguneko Zentroa kudeatzeagatiko diru-laguntza ordaintzea (abuztua).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/419.- Elkarkidetza Pentsioak.- Abuztuko likidazioaren faktura onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/420.- Salmantóneko Administrazio Batz.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/421.- R.I.L.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitza batean kanpoko arotzeria aldatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/422.- O.M.M.- Obrak egiteko baimena ematea Luiaondoko etxebizitza bateko terrazan eta sukaldean galdararen hodiak konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/423.- GURE ANDERE.- 2017ko diru-laguntza justifikatu ez duela adieraztea eta zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/424.- J.O.L. - J.B.Y.- Udal-lizentzia ematea Izorian familia bakarreko etxebizitzak hartzen duen aldatutako espazioa okupatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/425.- J.M.R.B.- Langile lan-kontratudunak kontratatzea (2018).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/426.- J.Z.L.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitzarako sarbidea egiteko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/427.- J.J.S.A.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/428.- J.O.L. - J.B.Y.- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko jarritako fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/429.- DORREKO PILOTA KLUBA.- 2018ko diru-laguntza ematea, % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/430.- Apartamentos Turísticos Llanteno SC.- Llantenen apartamentu turistikoak egiteko obretako hondakinen kudeaketagatiko fidantza jartzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/431.- J.C.M.G.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitza bateko terraza konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/432.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batz.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/433.- J.R.A.U.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxola bateko estalkia teilaberritzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/434.- E.B.O.- Obrak egiteko udal-baimena ematea Menagaraiko lursail batean familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/435.- L.M.B.- Biztanleen udal-eroldako baja, bidegabeko inskripzioagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/436.- F.J.G.F.- 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/437.- M.E.S.M.- 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/438.- T.G.J.- 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/439.- Autocares Sobrón.- 2018-2019 ikasturtean Etxaurren Ikastolan eskola-garraioaren zerbitzua baimentzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/440.- Funtzionarioen eta alkatearen nominen hileko txostena onestea (iraila).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/441.- Alderdi politikoek ekarpen ekonomikoari buruzko hileko txostena onestea (iraila).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/442.- Elkarkidetza Pentsioak.- Faktura onestea (iraila).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/443.- Onestea F/2018/13 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/444.- Aiarako Kuadrilla.- Erabilitako olio biltzeko zerbitzuagatiko kostuak onartzea, 3/2018.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/445.- Aiarako Kuadrilla.- HHSak kudeatzeagatiko kostuak onestea, 3/2018.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/446.- Udalkideen ekarpen ekonomikoa onestea (2018ko iraila).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/447.- Nortegas Energía Distribución SAU.- Jabari publikoko okupazio-tasaren likidazioa (2018ko 3. hiruhilekoa).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/448.- G.M.H.- Obrak egiteko udal-baimena ematea Murgan dagoen etxebizitzan terraza konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/449.- Red Suministro GLP SAU.- Jabari publikoko okupazio-tasaren likidazioa (2018ko 3. hiruhilekoa).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/450.- Retes de Llanteno Administrazio Batz.- Obrarako udal-baimena ematea bidea konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/451.- J.A.B.- Kexaan eraikitako etxebizitza bat lehen aldiz okupatzeko udal-baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/452.- Etxaurren Ikastolako IGE.- Talde psikopedagogikoaren eta bi urteko gelako laguntzailearen maiatz eta ekaineko nominak ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/453.- C.B.A.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/454.- Llanteno Administrazio Batz. - Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/455.- Kontratu txikia esleitzea, Luiaondoko Barrena kalea berroneratzeko proiektua idazteko zerbitzuetarako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/456.- A.A.C.- Aparkatzeko txartela berritzea U.E.A.ri.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/457.- S.V.R.I.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/458.- Arespalditzako Administrazio Batz.- Obrak egiteko udal-baimena ematea Inarzako bidea konpontzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/459.- Murgako Administrazio Batz.- Plaza egokitzeko obraren hondakinen kudeaketagatiko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/460.- Gizarte Segurantza.- Kotizazioen ekarpena (2018ko abuztua).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/461.- DORREKO PILOTA KLUBA.- 2017ko diru-laguntza justifikatu ez duela adieraztea eta zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/462.- Aiarako Trikitixa zerbitzua kontratatzeke kontratazio-espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/463.- KILI-KILI ARESPALDITZA ELKARTEA.- Udal-lokala erabiltzeko lagapena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/464.- Pilbacken SL.- Industrialdeko nabea eraisteagatiko eraispene eta eraikuntza-hondakinak kudeatzeagatiko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/465.- R.M.M.I.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/466.- Murgako Administrazio Batz. - Obrak egiteko baimena ematea Murgako plaza eta espazio publikoa egokitzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/467.- J.A.V.R.- Administrazio-espedienterako sarbidea ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/468.- J.M.U.C.- Obrak egiteko udal-baimena ematea Menagarain eraikin bat zaharberritzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/469.- Kirolgest SL.- Ikastaroak eta tailerrak emateko zerbitzu-kontratuan fidantza gisa jarritako abala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/470.- A.Z.A.- Administrazio-espedienteko jendaurreko informaziora sarbidea ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/471.- Llanteno Administrazio Batz.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/472.- 4/2018 zenbakiko kreditu gehigarria.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/473.- Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatzea, Luiaondoko Padura kalean irisgarritasuna hobetzeko obrarako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/474.- Apartamentos Turísticos SC- Obrak egiteko udal-baimena ematea Llantenen apartamentu turistikoak egiteko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/475.- J.C.G. - Obrak egiteko udal-baimena ematea Arespalditzako farmazian ortopedia bat sortzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/476.- M.A.I.I.- Obrak egiteko baimenaren espedienteari dagokionez dokumentazioa areagotzeko eskatzea.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza eta 2018/473 Dekretuari buruz (Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatzea, Luiaondoko Padura kalean irisgarritasuna hobetzeko obrarako) galdetu du; ez daki zeri egiten dion erreferentzia.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Eusko Jaurlaritzari diru-laguntza eskatu zaiola, baina irisgarritasunerako dela bakarrik.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU), 2018/474 Dekretuari buruz (obrak egiteko udal-baimena ematea Llantenen apartamentu turistikoak egiteko) adierazi du azkenean eman egin dela eztabaida handia sortu duen baimen hori. Eraikuntza mota horri ateak zabaltzeari dagokionez, esan du bere taldeak ez duela oso argi ikusten.

7.- Eskaerak eta galderak.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) eskatu du bilerak egiteko Gorobel mendilerroari buruzko askotariko gaiak lantzeko, zein garaitan gauden aintzat hartuta, datorren urtean udal-hauteskundeak izango baitira.
- Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) bat egin du AIARA BATUZ taldeko ordezkariak Gorobel mendilerroari buruz eginiko eskaerarekin.

Beste alde batetik, Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) guztiak gonbidatu ditu Donostian egingo den presoen aldeko manifestazioan parte hartzera. Adierazi du gaur egun ere beste pertsona batzuen kartzelatze arbitrarioak gertatzen direla, eta hortaz, sentsibilitateari dei egiten dio, gauzak aldatu nahi diren honetan.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hamazazpiak eta hamasei minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemezortziko urriaren hemezortzian.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M^a Carmen Rojo Pitillas.